

"Kontzertuan eta irekita", Carlos Mena, Daniel Oyarzabal, Anne Etchegoyen, Miguelichi López eta Sole Giménez izango dira udako kontzertuetako protagonistak Santa Marian

Carlos Mena kontratenorra eta Daniel Oyarzabal organo-jotzailea izango dira protagonistak Fundazioaren 25. Urteurrena ospatzeko kontzertuan. Anne Etchegoyen –Baionako Aizkoa abesbatzak lagunduta-, Miguelichi Lopez eta Sole Gimenez Santa Maria plazan arituko dira, "Kontzertuan eta irekita" zikloaren barruan.

Santa Maria Katedrala Fundazioak eskerrak eman nahi ditu Fundazioaren 25 urteetan herritarrek emandako babesarengatik. Beraz, lau kontzertu handi antolatu ditu herritar guztientzat, eta era askotakoak eta kalitatezkoak izango dira.

Lehen musika-hitzordua **uztailaren 20an** izango da, 19:00etan, Katedralaren nabea. Nazioartean izen handia duten bi musikari gasteiztar izango dira protagonistak: **Carlos Mena kontratenorra eta Daniel Oyarzabal organo-jotzailea**, eta haiekin batera **KUP Taldea abesbatza eta hainbat instrumentista arituko dira**.

Carlos Menak zuzenduta eta "Santa María Splendens" izenburuarekin, honako hauek bezalako obrak interpretatuko dituzte: Scarlattiren "Stabat Mater", Listzen "Ave María" eta Perotin edo Tomas Luis de Victoria bezalako konpositoreen andre Mariari buruzko obrak.

Aurten, "**Kontzertuan eta irekita**" zikloa Katedralaren Elizpetik aterako da, Santa Maria plazan herritar guztiengana irekitzeko. **Uztailaren 25ean**, Iparraldeko **Anne Etchegoyen** abeslari ospetsuaz gozatu ahal izango dugu, eta harekin batera arituko da **Baionako Aizkoa abesbatza**, "**Festa**" laneko abestiak interpretatzen.

2023an argitaratu zuten albuma, konfinamenduan zehar sortua, Euskal Herriko jai herrikoien ezaugarri diren komunitate-espirtua eta ospakizun kolektiboa berreskuratzeko premiarekin. Errepertorioak gitarra akustikoak eta moldaketa dotoreak ditu, eta abesti herrikoien bertsioak tartekatzen dira Niko

Etxart, Erramun Martikorena, Pier-Pol Berzaitz, Alma Loca talde gipsy-latinoa eta Cali kantari kataluniarra bezalako artisten kolaborazioarekin. "'Festa'" lanak jaia elkarbizitzarako gune bihurtzeko gaitasuna du, eta fedea, itxaropena eta bertakoa izatea bezalako gai unibertsalak jorratzen ditu.

Uztailaren 26an, Cadizko **Miguelichi Lopez**en kontzertua izango dugu. Hain zuzen ere, hainbat musikarirekin batera, "**Salvaje**" albumeko abestiak joko ditu, aurtan argitaratutako jatorrizko kantuen lehen albuma. Flamenkoa, soula eta egile-abestia lan gordin, zuzen eta zintzo batean batzen dira, independentziari balioa emanez printzipio estetiko eta funtsezko gisa.

Zikloa **abuztuaren 2an**, larunbata, itxiko da, **Sole Gimenez**en kontzertuarekin. Artistak "**¡Celebración!**" aurkeztuko du, sentsibiltate, dotorezia eta benetako-tasunarekin eraikitako berrogei urteko ibilbidea ospatzeko. Kontzertuan haren karreraren une handiak jasotzen dituen ibilbidea eskainiko da: Presuntos Implicadoseko abeslari gisa hasi zenetik, bakarlari izan arte, estilo propioa, sofistikaturia eta hurbila landuz.

"Kontzertuan eta irekita" zikloko hiru kontzertuek **Arabako Foru Aldundiaren (Turismo Saila)**, **Gasteizko Udalaren** eta **VITAL Fundazioaren** lankidetzarekin, eta **Jazzargia Elkartek** ere parte hartuko du. Kontzertuak 19:30ean hasiko dira.

Bazkideentzako (Fundazioarekin harremanetan jarri behar dutenak **945 255135** telefonoan) gonbidapenak **uztailaren 7tik 10era** jaso ahal izango dira, eta publikoak oro har **uztailaren 11tik** aurrera jaso ahal izango ditu bisitarien zentroan (Santa Maria Kantoia, 3), **10:00etatik** aurrera. Pertsona bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu.



Carlos Mena y Daniel Oyarzabal



Anne Etchegoyen



Miguelichi López



Sole Giménez

Santa Maria Katedrala Fundazioa 2000. urteko ekainean hasi zen lanean, eta, geroztik, katedrala erreferentea izatera iritsi da ondarearen zaharberritzean, herritarrei begira lan egin duen eta egiten jarraitzen duen talde zabal baten lanari esker. Zaharberritzeko eta birgaitzeko obra handiak amaitu dira jada, baina oraindik ere Santa Maria bere bikaintasun osoan erakusteko lanak jarraitzen dute, "Obretan eta irekita" ekimenari esker.

Gure 25. Urteurrena ospatzeko, ekainaren 10ean, honako hauek izan ziren bisitan Katedralean: Imanol Pradales Lehendakaria; Ramiro Gonzalez, Arabako Ahaldu Nagusia; Javier Hurtado, turismo-sailburua; Irma Basterra,

Arabako Batzar Nagusietako presidentea; Cristina Gonzalez, Turismoko foru diputatua; Ana del Val, Kulturako foru diputatua; Sonia Diaz de Corcuera, Kulturako zinegotzia; eta Jose Miguel Lucas, Katedraleko Kabiloaren Deana, besteak beste. Haiekin batera izan ziren Jon Lasa eta Leandro Camara, Katedrala Fundazioko gerentea eta zuzendari teknikoa, tenpluan egindako ibilbidean zehar.

Gainera, Elizpean, Fundazioarekin eta Santa Mariarekin lotutako pertsona-talde bat bildu zen, horien lana eta laguntza baliagarria izan baita Katedrala Gasteizko eta Arabako turismoaren eta kultura-jardueren erreferente bihurtzeko urte hauetan zehar, duen erlijio-izaera galdu gabe.



"Lurraren zutabeak, musikala" eta Santa María

Ikuskizun honetako aktoreek abuztuan bisitatuko dute katedrala, Ken Follettek tenpluarekin duen lotura dela-eta. Britainiako idazlearen best seller-aren musika-formaturako egokitzapena da, formatu handiko ekoizpena, Erdi Aroko Ingalaterran girotutako botere, handinahi eta borroka istorio batean murgiltzen zaituena. Euskalduna Bilbaon izango da ikusgai **"Lurraren zutabeak, musikala"** abuztuaren 15etik 31ra, eszenaratze ikusgarriarekin. Ezbairik gabe, plan erakargarria da Erdi Aroko katedralak maite dituztenentzat.

Fundatzaileen zirkulua: sarrerak eskuratzeko deskontu berezia gure bazkideentzat. Interesatuak jarri harremanetan Santa Maria Katedrala Fundazioarekin uztailaren 31 baino lehen (deitu 945 255135 telefonora).



JARRAI GAITZAKEZU:

Gasteizko Nazioarteko Musika Ikastaro/Jaialdia

Santa Maria Elizpean izango dira jaialdi honen 18. edizioko bi kontzertu. **Abuztuaren 18an**, 20:00etan, **Idalia String Quartet** taldearen (Erresuma Batua) errezitaldia hasiko da, eta Haydn eta Beethovenen musika eskainiko du. **Abuztuaren 20an**, berriz, ordu berean baita ere, **Claudia Besné** harpa-jotzaileak Isiltasunaren Ahotsak programa eskainiko du, "Euskal altxor musikalkak ezagutzen".

Informazio gehiago www.vitoriamusic.com

IN MEMORIAM; SUSANA ARÉCHAGA



Duela gutxi utzi gaitu **Susana Aréchagak**, Gasteizko Elizbarrutiko Ondare Historiko-Artistiko eta Dokumentaleko gotzain-arduradunak. Santa Maria Katedrala Fundazioaren izenean, omenaldi berezia egin nahi diogu, besteak beste, Arte Historialari, irakasle, argitalpen ugariren egile, Eusko Jaurlaritzako arte aditu eta sustatzaile eta Elizbarrutiko Arte Sakratuaren Museoko arduraduna izan denari.

Urte hauetan, etengabe harremanetan egon gara Susana Aréchagarekin, eta harreman bereziki bizia izan da **'Altxor Bizia'** proiektuan zehar; proiektu horren bitartez, Santa Maria Katedralaren historian zehar izen den ondare artistikoari balioa eman nahi genion.

Goian bego



AbiertoPorObras



@CatedralVitoria



CatedralVitoria



Katedraldea



@catedralvitoria